



¡saldremos!!

Balioko duen diskurso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

MERKATARITZA

Iñigo Urkullu Renteria

Bilbao, 2020ko uztailaren 8a

Merkataritza eta ostalaritza oinarrizko jarduerak dira gure gizarte-bizitzako ereduan. Gizarte-harremanak dinamizatzen dituzten jarduerak dira, bizitza sustatzen dute eta tokiko ekonomiak eta enpresa txikiak bultzatzen dituzte. Gure hiri, herri, auzo eta kaleei bizi poza ematen diotenak dira.

Autonomoak, “zero kilometroko” saltoki txikiak, ostalaritza eta jatetxeak lehentasuna dira guretzat.

Orain arte, mikroenpresei eta autonomoei lagundi diegu likidezia-neurriekin; bermututako maileguak eman ditugu krisiaren unerik gogorrenak gainditu ahal izateko. Kolpearri eusteko neurriak izan dira. Orain, laguntzak eman behar dizkiegu jarduera erabat berreskuratzeko, prestakuntza eta egokitzapen digitala hobetzeko. Aurrera egiteko neurriak dira.

Eusko Alderdi Jeltzalearen bost konpromiso aurkezten ditut:

1. **“Zero kilometroko” merkataritza-plana.** Saltoki txikietan kontsumoa sustatuko dugu. Tokiko eta sasoiko produktua, “zero kilometroa” indartuko dugu.
2. **Turismoa eta tokiko merkataritza uztartzeko programa.** Merkataritza eta ostalaritza mapa turistikoak eskainiko ditugu, betiko tokiko merkataritza balioesteko.
3. **Merkataritza-gune bereziak dinamizatuko ditugu.** Udalekin batera, hutsik dauden merkataritza-lokalak berreskuratzeko programa abian jarriko dugu. Merkataritza-guneetarako irisgarritasuna hobetuko dugu.
4. **Enplegua berreskuratzeko programa.** Gazteak kontratatzeko laguntzak indartuko ditugu. Eraldaketa digitala laguntzeko eta gidatzeko aholkularien sistema garatuko dugu.
5. **Prestakuntza hobetza.** Merkataritza eta ostalaritzako ikasgela digital bat sortuko dugu. Prestakuntza duala duen merkataritza-eskola sustatuko dugu eta 2.500 profesionalentzako prestakuntza-programa zabalduko dugu .

Helburu partekatu bat dugu: tokiko merkataritzan eta ostalaritzan galduetako enplegu guztia berreskuratzea. Saltokien, ostalaritzaren eta jatetxeen bizitza berreskuratu behar ditugu. Gure kaleak, auzoak, herriak eta hiriak bizirik nahi ditugu. Hori da gure helburua. Merkataritza bizia herri bizia da. Euzko Alderdi Jeltzalearen mezua da “globalki pentsatu eta tokian-tokian kontsumitu”.

La actividad comercial y hostelera constituyen un elemento básico de nuestro modelo de vida social. Son actividades dinamizadoras de las relaciones sociales, potencian la vida ciudadana, impulsan la economía y las pequeñas empresas locales. Son un factor de creación y mantenimiento del empleo local. Son actividades que dan vida y personalidad a nuestras ciudades, pueblos, barrios y calles; aportan alegría de vivir.

Las personas autónomas, el pequeño comercio de kilómetro cero, la hostelería y la restauración son el referente de la estrategia del Partido Nacionalista Vasco. Son nuestra prioridad. Hemos apoyado a las microempresas y autónomos con medidas de liquidez y préstamos avalados para poder superar los momentos más duros de la crisis. Han sido medidas para atajar el golpe. Ahora toca apoyarles para recuperar completamente la actividad, mejorar la formación y la adaptación digital. Son medidas para salir adelante.

Presento cinco compromisos del Partido Nacionalista Vasco:

1. **Plan comercio kilómetro cero.** Fomento del consumo en el pequeño comercio, promoción del producto local y de temporada, “kilómetro cero”.
2. **Potenciar Turismo y Comercio local.** Vamos a ofrecer mapas de comercio y hostelería turísticos para poner en valor el comercio local tradicional y singular.
3. **Dinamizar las zonas comerciales singulares.** Programas para recuperar locales comerciales vacíos en colaboración con los Ayuntamientos. Nuevo plan de mejora de la accesibilidad a los espacios comerciales.
4. **Programa de recuperación del empleo.** Ayudas a la contratación de personas jóvenes, previa capacitación profesional. Sistema de mentores que guíen la incorporación profesional a la transformación digital. Programa “Berriz empresa” de relevo generacional y continuidad empresarial.
5. **Mejorar la formación.** Vamos a crear un Aula digital de comercio y hostelería. Impulsar la escuela de comercio con Formación dual. Programa de formación para 2.500 profesionales.

Tenemos un objetivo compartido: recuperar todo el empleo perdido en el comercio y la hostelería local. Recuperar la vida de los comercios, la hostelería y la restauración. Queremos ciudades, pueblos y barrios vivos y dinámicos. Un comercio vivo es un pueblo vivo. Es nuestro objetivo. El mensaje del Partido Nacionalista Vasco es “piensa global y consume local”.